

Loinatz jaiak antolatzeko batzordea eratze deialdia

Azken eguneratzea: Azteazkena, 16 Otsaila 2022 12:16

Argitaratua: Azteazkena, 16 Otsaila 2022 12:16



Pandemiaren bilakaerak jaiak burutzea baldintzatuko duen arren, antolaketa lanak normaltasunez hasi ditu Udalak

Otsailaren 17an, osteguna, arratsaldeko 17:00etan dago hitzordua ezarrita eta bilerara hainbat gogoeta eginda etortzeko eskaria egin dute

2022ko Loinatz Jaiak antolatzeko lehen pausoak eman ditu Udalak. Lehena, Loinatz jaietako kartela aukeratzeko lehiaketaren oinarriak argitara ematea izan zen eta orain jaiak antolatzeko batzordea eratze bileraren deialdia izan da.

Edonola ere, Udalak garbi utzi nahi du pandemiaren bilakaerak baldintzatuko duela jaiak ospatuko diren edo ez. Beraz, normaltasun egoera batek eskatzen duen moduan, antolaketa lanak behar de garaian hasi dira baina horrek datak gerturatzen diren heinean, unean uneko egoerak baldintzatuko du azken erabakia.

Loinatz jaiak antolatzeako batzordea eratzeko deialdia

Azken eguneratzea: Azteazkena, 16 Otsaila 2022 12:16

Argitaratua: Azteazkena, 16 Otsaila 2022 12:16

Kultura sailetik deialdia herriko elkarte eta eragile guztiei zabaldu da iada. Otsailaren 17an, arratsaldeko 17:00etan izango da lehen bilera udaletxeko batzar aretoan eta bertara gonbidatuak izan dira, elkarte gastronomikoak, udalarekin hitzarturik dauden kultur elkarte guztiak, auzo elkarteak, Goizerezi txistulari elkarteak, Ekaitz buruhandi eta erraldoiak, Koxkola txaranga, Atzegi, Asmube, Oriako lamiak, eta beste hainbat.

Ordubete irautea espero den bileran, jaiak antolatzeako batzordea eratua geratuko da. Kultura saileko arduradunek, bilerara etorri aurretik gai hauen inguruko gogoeta egitea eskatu dute: Loinatz Jaietako ekitaldi nagusiak zeintzuk diren; denak mantendu edo ez; zein kendu, zergatik eta ordezkoa zein izango litzateke.

Bestelako ekarpenak baleude, kultura sailarekin ohiko bideak erabiliz harremanetan jartzeko eskatu dute.